

Lan talde profesionalaren jarduna hezkidetzalea dela bermatzeko pentalogoa

### 1. DENBORA/PARTE HARTZEA/INIZIATIBA

- Beste lankideek hitz egiten dutenean entzuten saiatuko naiz errespetuz ibili ahal izateko.

*Hezitzaile bat hitz egiten ari da eta bat-batean beste batek mozten dio edo oihuka hasten da. Moztu duenari esango diogu hezitzaileak bukatu arte itxaroteko eta isilik egoteko mesedez, bestela ezingo diogula lankideari entzun.*

*Ez duguna egingo da: moztu duenari hitza eman. Hitza ematen badiogu, jokabide ezegoki eta gainjarria dena indartzen ibiliko gara.*

- Sarritan hitz egiten badut, eta horrek beste lankideei hitza hartzea eragozten badie, beste lankideei hitza hartzeko erraztasunak eskaintzen saiatuko naiz. Era berean, hitza hartzea kostatzen bazait, saiatuko naiz hitz egiten dudanetan tinko mantentzen (beste hezitzaileok horretan lagundu beharko dugu).

### 2. TONUA

- Zaindu beharko dugu komunikatzeko erabiltzen dugun tonua. Ez dadila izan "bereizitzailea" izan.

*Saiatuko gara sexuak ez baldintzatzen komunikatzerako orduan erabiltzen dugun tonua. Askotan gertatu ahal da, nerabeekin esku hartzean, modu inkontziente batean, sexu batekoa izan ala bestekoa izan, gure tonua gogorragoa ala suabeagoa izatea. Gauza bera gertatu daiteke hezitzaileon artean ere.*

### 3. ARDUREN BANAKETA (Rolak)

- Ekintza edo tailerren diseinua eta plangintza gauzatzean argi edukiko dugu genero, rol eta estereotipoak kanpoan utzi behar direla.

*Egokitu zaigun rol horretan eroso sentitzeko eta eredu hezkidetzalea izateko bitartekoak jarriko ditugu (formatuko gara, aritu bilakatzeko). Hala, generoa dela eta jaso ez diren gaitasunak garatzeko aukerak sortuko ditugu. Era berean, geure partetik ere, aurre disposizioa egon beharko da ekintza jakin hori gauzatzeko.*

- Lan eta ekintzetan rolen txandatzea eta aldaketa antolatuko dugu, partaide guztien artean adostuz. Era berean, lanak eta erantzukizunak era orekatuan banatuko ditugu.

#### 4. HIZKUNTZA\*

##### Hizkuntzaren erabilera

- Erabilera aldatzea sistema aldatzea baino errazagoa da. Ezin dugu esan euskara ez dela hizkuntza sexista genero bereizketarik egiten ez duelako. Era berean ezin dugu baieztatu sexista denik. Gakoa erabileran dago. Gogoan edukiko dugu, kultura sexista batetik hitz egiteko era sexista bat eratorri ahal dela eta horrek, sexismoa iraunarazten duela kulturari.
- Sexu- genero sistemak, bi genero aitortzen ditu, beraz bien interesak asetuko ditugu. Adi, horrek ez du esan nahi guk “bi generoen” ideia hori babestu behar dugunik. Baina, hala eskatzen duten testuinguruetan, bi genero horien interesak asetuko ditugu. Pareko tratamendua emango zaie.

*Euskaraz ditugun hitz elkarketak erabiliko ditugu (seme-alabak, neska-mutilak). Ahaidetasun-erreferentzia alferrikakorik ez egiten saiatuko gara. Ez dugu gutxietsi edo oztopatuko emakumeen ekintzak hizketaren bidez. Pertsona hitza erabili gizaki, gizonen ordean. Erdararik hartzen ditugun ohiko irainak edo espresioak zaindu (hemen ere ikuspegi androzentrista nagusitzen da eta).*

- Sexu-genero sistemak aitortzen dituen bi generoren ideia hori hausten saiatuko gara. Ez dugu neska/mutil binomio hori elikatu eta iraunaraziko beharrezkoa ez denean. Gazteez hitz egiten dugunean orokorki, intersexualak izango balira bezala tratatuko ditugu.

##### \*5 Gorputz jarrera (kinestesikoa)

- Ahozkoa ez den beste komunikazio kanala ere badago. Hitzekoa ez den komunikazioa. Zaindu beharko dugu gure gorputz jarrera. Indartzen dugun hori ez dadila izan “bereizitailea”.